

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Ipurua

DATA: 2017/11/21

Saila	Laburpena	
Zerbitzuak	Bizilagun batek eskatu du San Kistobal 15, 16 eta 17 zenbakietako eta Sostoatarren kalera joateko eskailerak garbitzeko.	Aurten, falch makina 6 hilabetez egon da geld; hortaz, ezin izan zaie aurre egin garbiketa-lan guztiei. Nolanahi ere, kontuan hartuko da etorkizunerako.
Zerbitzuak	Jakinarazi dute <i>Dioni</i> parean dagoen edukiontzi marroia bere lekutik aterata dagoela. Eskatu du sostengatzen duen plataforma zabalagoa izan dadila.	Edukiontzia birkokatu eta egiaztatu egin zen ondo finkatuta geratzen zela.
Obrak	Ubitxa eta San Kristobal arteko igogailuaren proiektuari buruzko informazioa eskatu du.	Aurten kontratatuko da proiektua idaztea. 2019aren udaberrian egongo da eskuragarri. Proiektua aurrera eramatea aurrekontuaren disponibilitatearen arabera izango da.
Obrak	Bizilagun batek salatu du San Kristobaleko 21 eta 23 zenbakietara iristea zaila dela eskailera-maila asko daudelako. Galdetu du ea pasabideren bat egin litekeen atarira zuzenean iristeko.	Pasarelak egitea posible da, baina, eraikinerako bide batean egonik eta ez ibilbide orokor batean, komunitateei dagokie eraikinen irisgarritasun-oztopoak ezabatzea; bestalde, lan horiek Udalaren diru-laguntza jaso dezakete.
Zerbitzuak	Romualdo Galdós 20 zk.ko bizilagun batek inguruko arbolak inautea eskatu du. Dioenez, adarrak 3. pisuraino heltzen dira eta kokuak ekartzen dituzte.	Neguan, adarrak inausi egin ziren, altuera handia hartzen ari ziren-eta.
Zerbitzuak	Salatu dute Ubitxa 1 zk.ko galtzadan, edukiontzien inguruan dagoen saretak zarata handia ateratzen duela ibilgailuak pasatzean.	Sareta horren konponketa-lanak azpikontratatu egin dira eta irailean egin dira lanok.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Ipurua

DATA: 2017/11/21

Saila	Laburpena	
Udaltzaingoa	Ubitxa 1 zk.an pasabide goratu bat jartzeko aukerarik dagoen galdetu du bizilagun batek. Baieztatu du edukiontziek eragotzi egiten dutela ondo ikustea eta ibilgailuak abiadura bizian doazela.	Aztertu egingo da.
Zerbitzuak	Auzokide batek salatu du jada ez direla garbitzen Jazinto Olabe plazako arkupeak. Dioenez, itxi zirenetik ez ditu inork garbitzen eta galdetzen du ea publiko edo pribatuak diren.	Inguru honetan, arazo bat egon zen zerrailarekin arkupeetara iristeko. Lan-agindua egin zen hori konpontzeko eta abisua pasatu zitzaion Mankomunitateari garbiketa egin zezan bere planifikazioaren barruan. Garbiketa 2 edo 3 astetik behin egiten da.
Udaltzaingoa	Salatu dute jendeak edukiontzietatik kanpo lagatzen duela zaborra.	Ikusiz gero norbaitek zaborra edukiontzitik kanpo lagatzen duela identifikatu eta zehapen-espeditante bat zabaltzen zaio.
Obrak	Bizilagun batek eskatu du ez labaintzeko tratamenduren bat egitea Jazinto Olabe parkean. Dioenez, zorua labainkorra da.	2018 urteko aurrekontu parte-hartzaileen barruan egingo da.
Zerbitzuak	Salatu dute auzoko lanparak oso zikinak daudela.	Argiak hondatu edo itzali ahala ordeztan direnean garbitzen dira.
Udaltzaingoa	Kexu da Armeria Eskolako lorategia txakur-kakaz josita dagoelako.	Ikusiz gero pertsona batek ez dituela txakurren kakak batzen, identifikatu egiten da eta zehapen-espeditante bat zabaltzen da.
Udaltzaingoa	Eskatu dute seinale handiagoa jartzeko Ipuruako kiroldegiko aparkalekuaren ibian. Dioenez, jendeak ez du ikusten eta han aparkatzen du.	Ibien seinalizazioa ibi-lizentziaren titularraren ardura da.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Ipurua

DATA: 2017/11/21

Saila	Laburpena	
Alkatetza	Ipuruako kiroldegia pintatzeko eskatu du bizilagun batek eta baita mantentze-lana egitea ere.	Sarrera berriztu eta pintatu egin zen. Igerilekuetan ere lanak egin dira. Gainera, instalazioei eta makinei dagozkien azterketak egiten zaizkie eta, azkeneko urtean, larrialdietarako 5 irteera eraiki dira.
Zerbitzuak	Kexu da Santa Ineseko lorategiak inguratzen dituen egurrezko hesiak puntan amaitutako ertz batzuk dituelako, eta arriskutsuak direnak handik pasatzen direnentzat.	Hesiak aztertu ondoren, ez da inolako arazorik ikusten. Baldintza egokietan dagoela uste da.
Udaltzaingoa	San Kristobal auzoko bizilagun batek zebra-bidea egiteko eskatu du, 5. zk. parean.	Ezinezkoa da, lehen eta bigarren arrapalaren artean dagoen espazioa ez datorrelako bat asfaltoaren kotarekin kontrako espaloian. Agian ingurua hau 30 Gunea izan beharko litzateke, oinezkoen lehentasuna.
Udaltzaingoa	Eskatu dute San Kristobal inguruan abiadura mugatzea.	Dagoeneko abiadura San Kristobalen mugatuta dago.
Udaltzaingoa	Bizilagun batek salatu du txakur bakar bat ere ez doala lotuta.	Ez dago txakurra lotuta eramateko obligaziorik; soilik kontrolatzeko obligazioa. Arriskutsuak izan daitezkeen txakurren kasuan, lotuta eta mozalarekin eraman behar dira.
Zerbitzuak	San Kristobal ingurua ez dagoela garbi salatu dute.	Abisua eman zitzaion Mankomunitateari eta adierazi ziguten inguru hori hiru egunetik behin garbitzen dela. Gainera, ingurua urez garbitzen da mahukarekin bi hilabetetik behin.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Ipurua

DATA: 2017/11/21

Saila	Laburpena	
Zerbitzuak	San Kristobaleko leku batzuetan argi gehiago eskatzen dute.	Sostoaik San Kristobalera igotzen diren espaloietan aplike batzuk jarri dira. Gainera, berriz ere konektatu dira argi batzuk, egiten ari ziren lanekin, deskonektatuta zeudenak.
Zerbitzuak	Auzotar batek dio San Kristobaleko barandak zaharkituta daudela.	Lan-agindua egin da baranda horiek lixatu eta berriz pintatzeko. Lan hori grafitiak kentzeko azpikontrataturako pertsonalak egingo luke.
Udaltzaingoa	Bizilagun batek galdetu du ea oinezkoentzako pasabide bat egin daitekeen Ipuruako dorreen atzean.	Gai hau aztertu zen Trafiko Batzordean eta ez jartzea erabaki zen.
Udaltzaingoa	Salatu dute Eibar zer zikina dagoen eta zenbat pintaketa dauden. Galdetu dute ea gaia kontrolatu eta salatzen den.	Pertsona bat grafiti bat egiten identifikatuz gero, zehapen-espedita bat hasten da eta agindua ematen zaio pintaketa garbitzeko gastua ordaintzeko.
Udaltzaingoa	Mogel-Isasi ikastetxeko patio ondoan bizi den auzotar batek salatu du akustika-arazo bat dagoela eta ikastetxean antolatzen diren ekintzetako zaratak molestiak eragiten dizkiola.	Harremanetan jarri gara Mogel-Isasiko zuzendariarekin eta batukada antolatzen dutenekin hitz egingo zuela esan du.
Zerbitzuak	Kexu da Otaola hiribideko espaloia, DEJen parean, altxatuta eta apurtuta dagoela.	Lan-agindua egin da Otaola hiribideko arbolen txorkoak erretiratzeko, DEJ enpresaren parean. Sastrakak kenduko dira eta zementuarekin estaliko dira.
Zerbitzuak	Bizilagun batek salatu du Ford-en parean dagoen txorkoa ez dagoela espaloia maila berean.	Txorko horretan lurra bota da, hala, espaloia maila berean utziz.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Ipurua

DATA: 2017/11/21

Saila	Laburpena	
Zerbitzuak	Auzotar batek eskatu du Sostoaarren 2 zenbakira irispide bat egiteko. Dioenez, ezin da patiora jaitsi.	Eskaera hau aztertu ostean, ondorioztatu da irispide bat egitea arriskutsua izan daitekeela, ez baita erabili behar den inguru bat.
Udaltzaingoa	Salatu dute <i>Sania</i> tabernaren pareko bihurguneak bisibilitate txarra duela.	Ubitxaranzko jaitsieran dagoen bihurgunea bada, kurba hori leundu liteke ezkerreko aparkalekuak kenduko balira, jaitsierako noranzkoan.
Alkatetza	Eskatu dute San Kristobal inguruko aparkalekua beste aldera eramateko eta espaloia estutzeko. Diotenez, orain dagoen bezala, neketsua da bertatik zirkulatzea.	Eskaera hau baloratu ondoren, egiaztatu da aparkalekua espaloia aldera aldatuko balitz, oinezkoei bidea oztopatuko litzaiekeela atarietara eta komertzioetara joateko.
Zerbitzuak	Auzotar batek dio, Santa Ineseko irteeran, ibilgailuarekin zoazenean, ez dela ondo ikusten edukiontziak direla-eta. Eskatu du ispilu bat jartzeko.	Ispiluaren seinale bat jarri zen hormaren goialdean, landaresien inguruan, iraunkortasun-kontu batengatik; izan ere, kamioiak hormatik oso gertu pasatzen dira eta seinalea kolpatzeko arriskua handia da. Dena den, Obra sailak seinalizazio horizontala aldatu du, galtzadara ateratzea leku honetan errazagoa eta hobe izan dadin